



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Ermaña.

Auzoa, udalerrria: Santiagomendi., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserri zaharraren behe solairuan, eraikinaren eskuinaldean (hego-ekialdean). Tina eta upelak sotoan dituzte.

Jabea: Joxean Zubillaga.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Urtero egiten dute sagardoa.

Zenbait datu:

Egungo erabilera: Sagardogintza.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Askaren erdian porlanean zutik hartutako ardatz bakarra du. Trakzio mekaniko bidez mugitzen da gora eta behera, ardatz hariztatu muntatutako burua. Motorra estutzeko mekanismoarekin batera mugitzen da, eta zuzenean eragiten du horzdun koroan, uhalen beharrik gabe. Zurezko urkaren ordeztuzko altzairuzko perfil zatia du. Hormigoizko aska du.

Dolarearen osagarriak:

- Trakzio mekanikodun matxaka.
- Matxakaren tolbara sagarrak igotzeko uhal garraiatzailea.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagar-biltzerako eta patsa mozteko tresneria.
- Altzairu herdoilgaitzezko lau upel.
- Altzairuzko tina.
- Botilaratzeko makina zaharra.

Argazkiak: 09.01, 09.02, 09.03.

GAKO-HITZAK

Trakzio mekanikoa, matxaka, Astigarraga, sagardoa egin, upela.

OHARRAK

Baserrian bertan dagoen taberna-jatetxean edan daiteke etxean egindako sagardoa.

GALDETEGIA

Informatzailea: Josune Zubillaga.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 9a